

aldiz, irauli zan berriz ere oe gainera; eta argia bi-  
llatu zun begi aldakorrez ortzi goian, eta oi u egin zun,  
aurkitu zulako.

Juno guztialdunak, ordun, aren samin luzez ta erio-  
tza gaitzez errukiturik, Iris igorri zun Olinpu'tik, au-  
katu naiean zegon arima aren lokarriak eten zitzan,  
Adur-zoripean eta erio mereziz barik, lotsagarririo ta  
bertatiko sumiñak eraginda garai-aurrez iltzen zan  
ezkeroz, Proserpina'k etzion oraindik ebaki urrezko  
ille-mataza, ezta aren burua su-lezarako gaiztetsi ere.  
Iris, beraz, urrezko ille-mataza, ezta aren burua su-  
lezarako gaiztetsi ere. Iris, beraz, ego intz-ezezkor  
zeru oztin zear egan, eundaka kolorezko abaiña eguz-  
kiari buruz edaturik, egada galgatu ta aren buru gain  
kokatzen da. «Nik, agindu bezela, Pluton'i damaiot  
ille done au, ta gorputz ontatik jaraiten zaitut». Ona-  
la diño, ta eskoï eskuz illea ebakitzen dio; eta, bato-  
ra, joan ba-dijoa bero oro, hizia aizetan itzaliaz.

OTARRU

## OMENALDIAK

*Bertsolariak Bilbo'n.* Lurreko gauza inpu-  
tika ta zirtzilai uko egiñik, arimako ta zeru-  
tikoetan murgil dabilzan gizasemeak, gaur  
beintzat goresgarri doguzala, nok ez daki?  
Noizik-bein, bada olako gizonak jaso ta ain-  
tzalduteko, goratzarre ta omenaldi batzuk  
eratu ta jaitzea on eta egoki dala deritxat.

Igaro iraillaren 6'an, igandez, bertsolari jai  
bipilla ospatu zan Bilbo'n, alde-aurrez ira-  
garrita egoanari jarraiki, ta, egin-egiñean be.  
Nabarniz'ko bertsolari Elorza artzain zar-  
txoaren omenez. Txit ondo egiña.

An jokatu eben bertsolariak etziran gero  
bada-ezpadakoak, eurretiez be. Bizkai'ko hosi  
erritan beintzat ekiñaldi galantak jasan eta  
txalorik naiko irabaziak baiño: Enbeita, Al-  
berdi, Ormaetxe, Deunoro, Azpillaga ta Pu-  
jana. Onetxek hai bertso kiriotsu ta urtenaldi  
zorrotzez arrasti argi artan Bilbo'ko Aren-

loan batu ziran amar milla ta geiago arima  
an-emendik aratutako euskaltzale zintzoak-  
le, dindil euki ebezanak. Txalo-duin ziran-  
le, euren bertso-kantatze gupera ta samur,  
asmutsu ta sarkor ordaiñez, asper bageko es-  
ku-zarta beroak lortu ebezan.

Igaz lez aurten be, Balentin Enbeita, Mu-  
xika'ko Urretxindor zanaren semea, geratu  
zan kopa ta txapel-jaube. Izan be, gaurkoz  
beiñik-bein, berau dogu Bizkai aldetik ber-  
tsolarietan errez, sakon, goxo ta etorririk an-  
dikoena.

*Loramendi'ren omenez.* Bedoña, nik ez ne-  
ban ezagun joan dan iraillaren ogeigarrene-  
rarte. Erritxo onek ba-dau bere zera, muiño  
gaiñean apatz jarrita; udalez Aretxabaleta'-  
koa ta Arrasate'tik kilometro bira, alderdi li-  
lluragarriak ditu ezker-eskuma. Emen jaio  
zan Loramendi olerkari yaukala 1908'ko ur-  
tarrillaren 27'an, eta Donostia'n il 1932'ko  
epaillaren 25'an, meza emon baiño ogei ta  
bat egun lenago.

Olerkari yaioa nunbait kaputxino-gai au.  
Eta Euskaltzaindia'k, burubide bikaiñez, jai  
eder bat eratu eban aren aintzaz, nun eta Be-  
doña'n, Loramendi'ren jaioterrian. Aurretik  
be, jakiñean gagoz, literatur-sariketa bat an-  
tola zan bertsoz, itz lauz ta antzerkiz. Ber-  
tsozko saria G. Aresti'k eroan eban, itz lauz-  
koa Jauregi'tar Luis apaiz jaunak eta antzer-  
ki-saillekoa E. Erkiaga'k, beste batzuen ar-  
tean.

Asko be asko —bost milletik gora— izan  
giñean goiz zoragarri artan Bedoña muiñora  
igon gendunok. Andra ta gizon, neska ta mu-  
til, gazte ta zar, guztiak igande-soiñekoz zuri  
ta gorri, bide betean, aldapa gora, oiñez ta  
tarrantaz. Guztiok giñoiazan asmo ta gar ba-  
tek eraginda. Iñok ez eban gar orretzaz itzik

aldiz, irauli zan berriz ere oc gainera; eta argia bi-  
llatu zun begi aldakorrez ortzi goian, eta oiu egin zun,  
aurkitu zulako.

Juno guztialdunak, ordun, aren samin luzez ta erio-  
tza gaitzez errukiturik, Iris igorri zun Olinpu'tik, as-  
katu naiean zegon arima aren lokarriak eten ziltzan.  
Adur-zoripean eta erio mereziz barik, lotsagarriri ta  
bertatiko sumiñak eraginda garai-aurrez iltzen zan  
ezkeroz, Proserpina'k etzion oraindik ebaki urrezko  
ille-mataza, ezta aren burua su-lezarako gaiztetsi ere  
Iris, beraz, urrezko ille-mataza, ezta aren burua su-  
lezarako gaiztetsi ere. Iris, beraz, ego intz-ezekoz  
zeru oztin zear egan, eundaka kolorezko abaiña eguz-  
kiari buruz edaturik, egada galgatu ta aren buru gain  
kokatzen da. «Nik, agindu bezela, Pluton'i damaiot  
ille done au, ta gorputz ontatik jareiten zaitut». Ome-  
la diño, ta eskoi eskuz illea ebakitzen dio; eta, bate-  
ra, joan ba-dijoa bero oro, bizia aizetan itzaliaz.

OTARRI

## OMENALDIAK

*Bertsolariak Bilbo'n.* Lurreko gauza inpu-  
tika ta zirtzilai uko egiñik, arimako ta zeru-  
tikoetan murgil dabilzan gizasemeak, gaur  
beintzat goresgarri doguzala, nok ez daki?  
Noizik-bein, bada olako gizonak jaso ta ain-  
tzalduteko, goratzarre ta omenaldi batzuk  
eratu ta jaitzea on eta egoki dala deritxat.

Igaro iraillaren 6'an, igandez, bertsolari jai  
hipilla ospatu zan Bilbo'n, alde-aurrez ira-  
garrita egoanari jarraiki, ta, egin-egiñean be,  
Nabarniz'ko bertsolari Elorza artzain zat-  
txoaren omenez. Txit ondo egiña.

An jokatu eben bertsolariak etziran gero  
bada-ezpadakoak, eurretiez be, Bizkai'ko bost  
erritan beintzat ekiñaldi galantak jasan eta  
txalorik naiko irabaziak baiño: Enbeita, Al-  
berdi, Ormaetxe, Deunoro, Azpillaga ta Pu-  
jana. Onetxek bai bertso kiriotsu ta urtenaldi  
zorrotzez arrasti argi artan Bilbo'ko Arena-

lean batu ziran amar milla ta geiago arima  
an-emendik aratutako euskaltzale zintzoak-  
le, dindil gora barne-zirrada eztitan, aritik  
eta, euren bertso-kantatze gupera ta samur,  
asmutsu ta sarkor ordaiñez, asper bageko es-  
ku-zarta beroak lortu ebezan.

Igaz lez aurten be, Balentin Enbeita, Mu-  
xika'ko Urretxindor zanaren semea, geratu  
zan kopa ta txapel-jaube. Izan be, gaurkoz  
beñik-bein, berau dogu Bizkai aldetik ber-  
tsolarietan errez, sakon, goxo ta etorririk an-  
dikoena.

*Loramendi'ren omenez.* Bedoña, nik ez ne-  
ban ezagun joan dan iraillaren ogeigarrene-  
rarte. Erritxo onek ba-dau bere zera, muiño  
gaiñean apatz jarrita; udalez Aretxabaleta'-  
koa ta Arrasate'tik kilometro bira, alderdi li-  
lluragarriak ditu ezker-eskuma. Emen jaio  
zan Loramendi olerkari yaukala 1908'ko ur-  
tarrillaren 27'an, eta Donostia'n il 1932'ko  
epaillaren 25'an, meza emon baiño ogei ta  
bat egun lenago.

Olerkari yaioa nunbait kaputxino-gai au.  
Eta Euskaltzaindia'k, burubide bikaiñez, jai  
eder bat eratu eban aren aintzaz, nun eta Be-  
doña'n, Loramendi'ren jaioterrian. Aurretik  
be, jakiñean gagoz, literatur-sariketa bat an-  
tola zan bertsoz, itz lauz ta antzerkiz. Ber-  
tsozko saria G. Aresti'k eroan eban, itz lauz-  
koa Jauregi'tar Luis apaiz jaunak eta antzer-  
ki-saillekoa E. Erkiaga'k, beste batzuen ar-  
tean.

Asko be asko —bost milletik gora— izan  
giñean goiz zoragarri artan Bedoña muiñora  
igon gendunok. Andra ta gizon, neska ta mu-  
til, gazte ta zar, guztiak igande-soiñekoz zuri  
ta gorri, bide betean, aldapa gora, oiñez ta  
tarrantaz. Guztiok giñoiazan asmo ta gar ba-  
tek eraginda. Iñok ez eban gar orretzaz itzik

egin, baiña arpegi azalcan nabari yakun. Zenbat esku ezagun guk estutu! Ezagun ezak be bai, ta ez gitxi. Ba-dau zerbait oi-ezkoa, euskaltzaleen esku-zanpatzeak. Zer ete? Zuk bai al dakizu, irakurle?

Mendibitsu'ra, Loramendi'ren baserrira, jatsi gintzazan amaika ta erdietarako. Bertatik, ordu-orduan, meza aurreko zelai zabal orlegian, guztiok buru-as erantzunda. Zerua goi, lurra be, erdian altara txukun; gu aurrez-aurre, oi euskaldunon Jainko altsu, Zuri biotz-lurruna eskinka. Onets gagizuz!

Altara gaineko oroitarria estalgetu eban ondoren Loramendi'ren ama zartxoak, esku-dardar ta biotz-alai. Itzaldi joria gero, A. Arrue'k egiña; dantzariak, gorulariak, olerki-esalariak... Danak ezin obeki. Maria'go neskato begi-urdiñak, Loramendi'ren ENADA BELTZA esaten ziardualarik, enada zuri-baltz bat ebillen, egaz-egazka, guztien biran. Guk lez arek be, ba-eban zerbaiten miña papar zurixkapean. Azkenik, Basarri ta Lizaso bertsolarien jarduna ta sari-banaketa. A! ta doi-doi aaztu: guen-guenean, bazkari mardula, solas piperintsuz lurrundua.

Labur: Jai ezin ohea, Loramendi'k merezia. Gazterik zerura yakun praillegei lorazale au. Beronen gorpua Donosti'ko iltegian eortzi eben, gogoak goi-atsedenera egaz. Gogo edo ats aren zerbait, puska bat, orraitino, bere olerki ederretan itxi euskun. Irakurri dastatu daiguzan aren bertso-lanak, eta aren ats biguñez jaubetuko. ziurki.

IGOTZ